



BARREN
TOKIKOM

Natur ondarean jarri du begia Morkaikok





La Basu, Ane Guria eta Raquel Koroma rap ibiltaria

Urriak 20, ostirala.
19:30ean, Kultur Etxearen parean hasita.

"La Basu eta Ane Guria Bizkaiko euskal raparen emakume erreferentzialak dira. Raquel Koroma, berriz, Sierra Leonako jatorria duen dantzari gipuzkoarra da, Fermin Muguruzaren kontzertuetan jardundakoa. Hirurak bat eginik, kontzertu ibiltaria egingo dute, beraien eritmo, ahots eta dantza-pausuak uztartuz".



La Basu



Ane Guria



Raquel Koroma

Izan daiteke euskaltzalea feminista izan gabe?

Urriak 25, asteazkena.
19:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi-gela.

"Euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna antzekotasun asko dituzten bi prozesu pertsonal, sozial eta politiko dira. Euskal hiztuna eta emakumea subordinazioan daude. Bien aurkako menperakuntza moduak berberak dira, eta, beraz, subordinazioari aurre egiteko diskurtso eta praktikak partekatzea onurgarri izan daiteke".



Lorea Agirre



Idurre Eskisabel



Ainhoa Mendibil

Moderatzailea

Antolatzaileak:



elgoibar

ELGOTAR
BERDINTASUNA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Biara kuntri wina nishan wala nani bal taibi wan munanka

nek osatzen dute populazioaren gehiengoa, eta kolonoak dira Nikaraguako beste lurralde batzuetatik iristen diren arrotzak. Miskittoa da euren hizkuntza, eta inor gutxi erabiltzen du gaztelania. Eta komunitate indigenek osaturiko lurralde gehienak bezala, biztanleen gorputzek soilik babesten duten herri bat da; Managuak ez ditu kontuan hartzen, eta bigarren mailako hiritar etiketa ezin kendurik lantzen dute lurra.

Ugariak dira Moskitia okupatzen saiatzen diren kolonoak, eta noski, ugariak miskitoen inguruan dituzten aurreiritziak. Alderantziz ere gertatzen da halakorik, miskitoei ere sekulako aurreiritziak dituzte haien inguruan; baina nola izan liteke herri zapaldu bat zapaltzaile?

Kolonoak ez dira, gainera, lur komunitario eta komunekin bakarrik konformatzen, hizkuntza bera kolonizatze objektu bikaina baita. Esango nuke, hizkuntza gutxituen zapalkuntzarik handiena ez dela gobernuen partetik jasotako babes eza, beste hiztun komunitateen gaitzespena baizik. Zoritxarrez, zentzu horretan erreliterik gordinena bizi dute miskitoei. Zer esan Cervantesen hizkuntza handia arriskuan egongo balitz bezala defendatzen dutenei? Zer esan indigena gutxi batzuek hitz egiten duten hizkuntza mehatxu gisa ikusten dutenei?

“Hablan en miskito para que no entiendan”, eta munduak inperialista linguistikoen inguruan ematen du bira.

“Esango nuke, hizkuntza gutxituen zapalkuntzarik handiena ez dela gobernuen partetik jasotako babes eza, beste hizkuntza komunitateen gaitzespena baizik”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkadi Leuzaren Argiturgarria

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA


(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

400.000 euroko inbertsioa egingo du Uncetak Elgoibarko instalazioa handitzeko

Eusko Jaurlaritzako agintariek Unceta enpresara eginiko bisita aprobeztatuz, instalazioetako batzuk handituko dituela adieraztera eman zuten Unceta taldeko arduradunek. Hala, Elgoibarko plantan 400.000 euroko inbertsioa egingo dute. Horrek neurketa-zerbitzuetako arloa handitzea ekarriko du; izatez, 300 m²-ko espazioa gaituko du proiektu berriak diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko. Laster gauzatu den inbertsio horrek aukera eman du Unceta taldean azken urtean beste hamar ingeniari sartzeko eta etorkizunean espazio berriak hartuko dituen proiektuetan aurrera egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailko ordezkariak Unceta taldearen Elgoibarko instalazioak bisitatu zituzten urriaren 11n, eta, bertan, lan-bilera egin zuten taldeko zuzendaritzako kideekin. Era horretan, zuzenean ezagutu zituzten taldearen jardura eta etorkizunerako erronkak. Bileran horretan izan ziren Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturako sailburua, Estibaliz Hernaez Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea, Aitor Urzelai Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria eta, enpresaren aldetik, Pablo Garate Unceta taldeko CEO, Borja Garate Sariki Metrologiako Zuzendaritzaren laguntzailea, Josean Larrea Sariki Metrologiako gerentea eta Aitor Tejada F. Uncetako merkataritza-zuzendaria.

Unceta familia-enpresa bat da, 143 urteko historia duena; orain bosgarren belaunaldiak zuzentzen du. 156 behargin ditu, eta Euskadiko automozioaren, aeronautikaren eta makina-erremi-



taren industriako enpresa nagusiei egiten dizkie zerbitzuak eta eskaintzen dizkie soluzioak. Unceta taldeak ordezkariak ditu Madrilan, Bartzelonan, Vigon eta Kuban. Horrez gain, Zamudioko Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa osatzen duten enpresa-sozietateen parte da Unceta taldeko Sariki Metrologia enpresa. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, UPV/EHUK eta Aeronautikako Klusterrak hartzen dute parte Zentro horretan.

Era berean, Eibarko Armeria Eskolarekin elkarlanean dihardu, zehazki Lanbide Heziketako ikastetxe horrek ematen duen goiko graduan, metrologian espezializatuan, gaur egun merkatuan ez baitago arlo horretako prestakuntzarik.

2016. urtean 30,5 milioi euro fakturatu zituen Unceta taldeak, eta % 10 inguruko inbertsioa egin zuen I+Gan.



Niceto Garate Goiarzun

2017ko urriaren 10ean hil zen, 94 urte zituela.

Familia elkartu duzulako.

Maitasuna emateko aukera eman diguzulako.

Geure onena ematen erakutsi diguzulako.

Eskerrik asko, aitona.

Bazoaz, baina zugandik sortuko dira besteak.

Garate familia



Berrikuntza eta Hiri Garapenari buruzko Europar Astearen parte hartu du Ane Beitiak

Debarroko odol emaileak omenduko dituzte bihar




Hiri eta Eskualdeen Europar Astearen parte hartu du Bruselan Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) alkateen berrikuntza batzordeak, kontaktuak lortzeko eta Europako esparruko eredu zuzeneko proiektuen berri izateko, eta batzorde horretako kide da Ane Beitia Elgoibarko alkatea. EUDELen Berrikuntza Batzordea hiru lurraldeetako alkateek eratzen dute: Elgoibar (Ane Beitia); Ermua (Carlos Totorika); Larrabetzu (Iñigo Gastelu); eta Zambrana, (Aitor Abecia). Guztiak izan dira Bruselan, urriaren 9tik 12ra bitartean egin zen Hiri eta Eskualdeen Europar Astearen. Egitasmo horrek, hain zuzen, 15 urte bete ditu aurten, eta edizio honetan, EBko eskualdeko eta hiriko politikak datozen urteetan izango dituen erronkak aztertu dituzte. Hainbat tailerretan eta hitzalditan parte hartzeaz gain, Berrikuntza Batzordeak lan-bilera bat egin zuen Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen egoitzan.

Debarroko odol emaileak omenduko dituzte bihar, Eibarren. Antzuola, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soralezko odol emaileak bilduko dira, eta intsigniak eta diplomak banatuko dituzte. 13:15ean elkartuko dira, eta omenaldi ekitaldiaren ostean, bazkaria egingo dute Unzaga Plaza jantetxean.

Ekitaldi horretan, ondorengo elgoibarrak eta mendarorak omentuko dituzte:

- ◆ Zilarrezko intsignia, 25 aldiz emateagatik: Unai Elorza, Javier Puyadena, Ane San Martin, Iñigo Astigarraga, Asier Arzamendi, Conchi Bereziartua eta Guillermo Garcia (Mendaro)
- ◆ Urrezko intsignia, 40 aldiz emateagatik: Yolanda Soto.
- ◆ Urrezko intsignia, 50 aldiz emateagatik: Javier Lazkano, Joseba Trueba, Jose Daniel Canales, Eduardo Iriondo, Jesus Beristain, Francisco Dieguez, Luis Perez eta Jesus Mari Muguruza (Mendaro).
- ◆ Urrezko intsignia, 60 aldiz emateagatik: Rosa Maria Coca eta Manuela Castro.



ETXEBIZITZA ETA
GARAJEEN HURRENGO
ERAIKUNTZA **UBITARTEN**

943 31 65 86

INFORMAZIO
GEHIAGO

www.sukia.com

San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar
Koordenadak: 43.212760, -2.416292

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

grupo LAZKANO

Enkarguaren bitartekaria
k haitzibon

Merkataritza txikia sustatzeko kalera irten ziren dendariak stock ferian



Txankakua merkatarik elkarteko 17 saltoki eta zerbitzuz parte hartu zuten Maialako parkean egin zuten stock ferian, herriko merkataritzari bultzada emateko helburuarekin. Ohikoa baino merkeago jarri zituzten dendariak euren produktak, eta horrek herritar asko erakarri zituen. Azokako une gorena, baina, 14:00etan ailegatu zen, ordu horretan egin zutelako 100 euroko sei erosketa txekeren zozketa. Urtero legez, herritar ugari batu zen zozketaren unean, izan ere sarriak eskuratzeko ezinbestekoa izaten da saritutako txartela unean bertan agertzea. Honako hauek izan ziren irabazleak: Enma Muñoz, Maria Asun Elustondo, Marivi Rodriguez, Pili Pedrosa, Lorea Vazquez eta Jaione Etxeberria.

Olasopeko asfaltatze obren bigarren fasea martxan dago



Elgoibarko Udalak Olasope industrialdeko aparkalekuen asfaltatze lanen bigarren fasea hasi du. Besteak beste, bigunguneak konpondu, kutxatilen estalkiak kota berrietara egokitu eta egun hondatu edo apurtutako estalki eta hustubideak berrituko dituzte. Udalak 54.530 euro inbertituko ditu (BEZa kanpo)..

Gotzon Garate bekaren hirugarren deialdia martxan da

Elgoibarko Udalak Gotzon Garate izeneko beka sortu zuen 2009an, euskara arloko ikerketa sustatu eta idazle elgoibartarra omentzeko, eta hirugarren deialdia jarri du martxan.

Lehenengo deialdian ikerketa gaia Elgoibarko Toponimia izan zen. Bigarren deialdian, berriz, Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko egitasmoak edota euskarriak proposatzea izan zen, eta horren emaitza da www.elgoibarreraz.eus ataria. Oraingoan haxe izango da egitekoa: Gotzon Garateren oroimenez, Elgoibarko Izarrak eta Udalak, 2009an hasita, elkarlanean antolatu duten *Euskara ala ez* zikloek emandakoa jaso, aztertu eta gizarteratzeko lan-plana diseinatzea. Proposamenak azaroaren 22ra arte aurkeztu ahaliko dira. Oinarriak eskura daude www.elgoibar.eus webgunean. Bekaren gehienezko iraupena 9 hilabetekoa izango da, eta zenbatekoa, berriz, 12.000 eurokoa. Ikerketa lana euskaraz egingo da, eta originala eta argitaratu gabea izan beharko da. Lana Udalaren Euskara eta Kultura Batzordeen ardurapean burutuko da. Eskabideak Arreta Bulegora bidali behar dira: Elgoibarko Udala, Herritarrentzako Arreta bulegoa. Santa Ana kalea 2. 20870 Elgoibar.



Kataluniako atxiloketak salatzeko elkarretaratzeak egin dituzte Elgoibarren eta Mendaron, Gure Esku Dagok deituta



Omnium Cultureko eta ANC Biltzar Nazional Katalaneko presidente Jordi Cuixart eta Jordi Sanchezen atxiloketak salatzeko elkarretaratzera deitu zuen Gure Esku Dago mugimenduak asteartean. Elgoibarko eta Mendaroko taldeek bat egin zuten deialdi horrekin, eta hainbat lagun batu ziren bi herrietan.

Oin Alai egitasmorako laguntzaileak behar dira

Oin Alai ikastolako 29 ume eta 14 boluntariorekin eta Herri Eskolako 23 ume eta 12 boluntariorekin hasi du ikasturtea. Azkeneko bi urteetan partaide kopurua, ume zein boluntarioena, handitu egin dela zehaztu dute arduradunek, baina egitasmoa indarberritzeko laguntzaileak behar dituzte. Hortaz, Oin Alaiko sustatzaileek boluntario izatera animatu dituzte herritarrek. Interesatuak Ikastolan edo Herri Eskolan eman dezakete izena.

Gogora ekarri dute anitzak direla programa honek adingabeei, gurasoei eta herritarrei, oro har, dakartzkien onurak. Ikasleek autonomia lantzen dute, erneago iristen dira eskolara, ariketa fisikoa egiten dute eta lagunekin batera egiten dute eskolarako bidea. Gurasoek, bestalde, ez dute kotxea erabili behar eta ohitura osasungarriak erakusten dizkiete euren seme-alabei.

Gracia Gomez eta Marutxi Gonzalez mendaroarrak bigarren, erretiratuen Gipuzkoako sukaldaritza txapelketan

Mendara, Elgoibar eta Eibarren eginiko marmitako lehiaketako irabazleak Mendaroko Goñati pilotalekuan batu ziren joan den urriaren 11n, Debabarreneko irabazlea aukeratzeko. Frontoian bertan prestatu behar zuten marmitakoa eta epaimahaiaren iritziz, Gracia Gomez eta Marutxi Gonzalez mendaroarrek eginikoa izan zen goxoen. Horri esker, erretiratuen Gipuzkoako sukaldaritza txapelketan parte hartu dute aste honetan, eta bigarren sailkatu dira, Pasaiaiko bikotearen atzetik.



Mari Tere Pedrosa Alvarez de Arcaya

2017ko urriaren 9an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Aitzol Arriola eta Iñaki Laskurain Morkaiko Mendizale Elkarteko zuzendaritzakideak.

75 urte betetzeko atarian, ilusioz eta ekiten jarraitzeko gogoz dago Morkaiko

Morkaiko Mendizale Elkartek batzar nagusira deitu ditu bazkideak hilaren 26rako (osteguna). Bereziki hiru gai nabarmendu dituzte gai-ordenean: elkartearen egitura berria, Morkaikoren 75. urtemuga, eta Elgoibarko mendi-eremu esanguratsuak eta mendiko ondarea berreskuratzeko azken urteotan auzolanean egindako lana. Erronka handi horren barruan, badute proiektu bat bereziki estimuan izan dutena, Morkaikoren proiektu izarra izan dena: Moru. 2014. urtean aurkeztu zuen Morkaikok Moru garbitu eta han dagoen Burdin Aroko herrixka babesteko proiektua. Danobat enpresak lagundu zuen proiektua diruz orduan, eta orain, Elgoibarko Udalaren esku laga du Morkaikok proiektua. Pozik daude, gainera, Udalak agertu duen interesarekin, eta baita lur-jabeak agertu duen prestutasunarekin ere.

- AINARA ARGOITIA -

Hirurogeita hamabost urte ez dira hala-hola betetzen. Jende askoren ilusioarekin, eginahalarekin eta babesarekin barririk bete ditzake elkarte batek 75 urte eta gaur Morkaiko dena izan. Ondotxo dakite hori Aitzol Arriola eta Iñaki Laskurain Morkaiko Mendizale Elkarteko zuzendaritzakideek [ostegunean izendatuko dute presidente Laskurain]. 2018an beteko du elkarteak 75. urtemuga, eta bistan da pozez, ilusio handiz eta ardura handiagoz bizi dutela une hau, horrenbeste urtean elkartearen jiran ibili direnen lana aitortzea eta egin duten guztia eskertzea ardura handia delako, lanaz gainera. Oraindik ez dute

75. urteurrenko programa osatu, baina hasiak dira adinekoei grabazioak egiten eta Morkaikoren memoria bizia jasotzen, eta horren harira, eskaera bat ere egin diete herritarrei: Morkaikoren historia osatzeko baliagarri izan daitezkeen argazki, bideo eta bestelako bitxikeriak biltzeko.

Ordu batzuk kenduko dizkie urteurrenko ekintzen antolakuntzak, elkartearen ohiko dinamikaren berezko lanekin uztartu behar harko dutelako eta militanteak direlako denak, borondatez ari direnak. Baina gustukua dute egitekoa, bizi dute mendia, eta fin ari dira nor bere egitekoetan, Morkaikoren egitura berrian. Dato



rren asterako, hilaren 26rako, antolatu dute urteko batzar nagusiaren harira elkartu gara haiekin, eskuartean dituzten gai nagusien errepasoa egiteko. Batzar nagusia Kultur Etxeko hitzaldi gelan egingo dute, ostegunean, 19:00etan, eta parte hartzera deitu dituzte bazkide guztiak.

Elkartearen egitura berria aurkeztuko dute batzarrean. Badira pare bat urte egitura hori hartu zutela, garai berrietara egokitzeko ahaleginean. "Jabetu ginen Morkaikoren egitekoak beste bat izan behar zuela. Gaur egun ez du horre beste jende izena ematen mendi-irteeratarako, mendizaleek badute beren materiala, badituzte gps-ak eta bestelako teknologiak eta informazioa ere nahi beste dute eskura. Beraz, zabaldu beharra geneukan", azaldu du Laskurainek. Lehen, elkartearen nukleotik zuzentzen zuten dena, baina orain, nukleo horrek adarrak ditu, besoak, eta horrek "operatiboagoa" egiten du elkartea, eta aldi berean, hazteko eta zabaltzeko aukera handiagoa ematen dio.

Sei bat lagunek osatzen dute gaur egun Morkaikoren nukleoa, zuzendaritza-taldea, eta mendizale elkarte baten ohiko funtzionamenduaren ardura dute euren gain. "Administrazio lan batzuk kanpora aterata ditugu eta aholkularitza enpresa batek egiten dizkigu. Lan burokratiko da hori, guri energia eta denbora asko kentzen ziguna, eta horregatik erabaki genuen kanpora ateratzea. Baina bestelako administrazio kontuen eta Federazioarekin, Udalarekin eta bazkideekin izan beharreko harremanen ardura geuk dugu. Hori, eta baita Karakateko Igoera eta Morkaikoren Eguna antolatzea ere", zehaztu du Arriolak. Gero, esan bezala, azpitaldeak ditu Morkaikok. Bi-hiruna bazkidek osatzen dute talde horietako bakoitza eta nor bere gustuko ekintzak antolatzen ditu, nor bere ahale eta indarren arabera: Haurrentzako irteerak, nagusientzako ekintzak, ohiko mendi irteerak, BTT martxak, eskalada, mendi eskia, espeleologia, raid taldea, mendi ingurune taldea eta emanaldietarako lantaldea. "Gai jakin baten inguruan interesa duten bazkideak dira, eta eurek antolatzen dute eurek gustuko duten hori, eta jakina, hala eginda, derrigorrean ari den batek baino gogo eta ilusio handiagoz antolatu eta sortzen dituzte ekintzak. Ardura eurek hartzen dute, eta gainerakook laguntzeko gaude. Lehen egiten genuen bezala, denok dena egin beharrean eta denok erre, orain, ardurak banatuta ditugu", dio Arriolak. Morkaikok baliabideak jartzen ditu. Morkaikoren aseguru-babesean egiten dituzte kontuak, finantziazioaren parte bat Morkaikok hartzen du bere gain, eta diru-laguntza eskaerak Morkaikoren ize-nean egiten dituzte.

Hamar bat azpitalde ditu orain Morkaikok, baina zuzendaritzakideek argi laga dute zabal-zabalik daudela eta gustura hartuko dituztela bazkideen proposamen berriak [Bulegoa asteazkenetan zabaltzen dute, 19:00etatik 20:30era. E-posta: morkaiko@morkaiko.eus]. Zuzendaritzakideak eta azpitaldeetako bazkideak urtean bi-hiru batzarretan elkartzen dira, denek denek berri izateko eta egutegia adosteko.

MORU, MORKAIKOREN PROIEKTU IZARRA

Morkaikoren mendi ingurune taldekoen proiektua da, 2014an abiatu zuten egitasmo zabalago baten atal bat. Bere garaian elgoibartarrentzat esangura handia izan zuten leku eta mendi-ondare batzuk [erromeria-guneak, iturriak, buzoiak...] bazter lagata zeudela jabetuak zeuden Morkaikoren, eta horiek garbitu, inguru horiei balioa eman, bazkideen artean auzolana bultzatu eta haurrekin kontzientziazio lana egitea erabaki zuten. Labur esanda, pinuak eta sasiak jandako lur-sailetan bertako espezieak landatu, inguru horretako ondare materiala bistaratu eta berriz ere naturgune horiek erakargarri bihurtu nahi zituzten. Hamalau puntu identifikatu zituzten, eta Sargodateko iturria berritza lehenetsi zuten. Proiektua idatzi, diru-laguntza eskuratu, lur-jabearekin tratua egin, hektarea bateko lur-saila erosi eta garbitu, haurrekin hemen bertako arbola espezieak landatu eta iturria konpondu zuten. Auzolanean egin zuten dena, 2013an, eta Karakateko iturria eta Muskurutxukoa konpondu zituzten hurrena, bi-hiru asteburutan.


Egitasmo horretan, baina, Moru zen proiektu izarra. "Elgoibarko balkoia" da Moru, Elgoibarko "ikuspegi onena" duen mendi, leku estrategikoa umeekin joateko eta historia handikoa, Brontze eta Burdina aroko herrirka dagoelako han. 2014an ekin zioten proiektua idazteari Foru Aldundiko arkeologoen aholkularitzarekin, eta ondoren etorri ziren beste egiteko denak: Lur-jabeak identifikatu, pinadia bota eta lur-saila erosteko tratua egin, diru-laguntza eskuratu eta lan handienak eginda zituztenean, Udalera jo zuten proiektua aurkeztera. Elgoibarko Udalak Paisaia proiektuaren barruan sartu du proiektua orain, eta ondo bidean datorren urtean hasiko dituzte lanak.

"Jabeekin hitz eginda dago dena, eta hil honen azken aldera botako dituzte pinuak. Eta bestelako lanak datorren urtean hasiko dituzte. Ez duguna nahi da Moru pinadi barruan hondatzen lagatzea, harresiaren zati bat apurtu da-eta dagoeneko". Lau hektareako saila erosteko du Udalak, Elgoibarrerako magala eta tontorra, eta etorkizunean, Elgoibarrerako mendi magalean, umeekin arbolak sartu nahiko lituzkete eta tontor alde garbitu eta zelai utzi. Arkeologia lanak ondoren egingo lituzkete. Abuztuan ibili da Udalak kontratatutako arkeologia talde bat zundaketak egiten, eta Morkaikoko lagun bat ere ibili da lan horiek jarraitzen, baina ikusteko dago zer azaleratuko duten indusketa lanek. "Topatzen dutenaren arabera erabakiko da gero zer egin, panelak jarri, parke bat egin edo zer, baina nolahi ere, Morkaikoren helburua beteta egongo da ordurako", nabarmendu dute.

Suhiltzaileen eta herritarren ezina
As Nievesn. Arg.: Marta Francisco

▶ ELENA ZUBIAURRE

▶ ALBERTO TOBIO



Elena Zubiaurre (Mendaro, 1976) eta Alberto Tobio (Pontevedra, 1968) Sanxenxon bizi dira (Pontevedra, Galizia). Gaur, astelehena, Galiziako zati handi bat sutan dago, eta kezkatuta, minduta eta etsita ere badaudela onartu dute, bereziki Albertok, ofizioz basozaina denak.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Nola bizi duzue egunotakoa?

Elena: Su-kontu hau urteroko kontua da, baina egia da honen bestekorik ez dugula 2006tik izan. Kontua da oraingoan sua herrietaraino iritsi dela eta horrek larritu duela jendea, mendia, zoritxarrez, urtero-urtero erretzen delako hemen. Esaten den moduan, herri honen idiosinkrasiaren parte da hau. Ez da erraza azaltzen. Oraingoan, gainera, jendea hil ere egin da, lau lagun gutxienez, eta horietako bat, gainera, gure ezagun baten ama da. Atera kontuak nola gauden. Etxerik gabe gelditu diren lagunak ere baditugu, eta, bai, gaurko eguna oso gogorra izan da. Guk geuk surik ez dugu ikusi, baina bai sentitu; ketuta daude bazterrak. Lankide bat etorri da lanera, baina alde egin behar izan du aitak deitu diolako esanez sua berriz piztu dela. Haserre zegoen oso, atzo [igandea] 20:00etatik gaur



“Agintarien utzikeria eta herritarren pasibotasuna daude Galiziako suteen atzean”

13:00ak arte euren herrian ez zutelako profesionalik ikusi sua itzaltzen eta herritarrek jardun behar izan dutelako, baliabiderik gabe eta oso modu prekarioan. Lagunak esaten zigun udaltzainen auto bakarra ikusi dutela eta udaltzainak errepidea mozttera mugatu direla. Eta etxeak erretzen ari ziren; pentsa! Tobioren [Alberto] lagunak sua itzaltzeko brigadetan ari dira, eta desesperatuta, audio grabazioak bidaltzen ari zaizkigu. Ez da beste gairik. Vigo oso handia da, baina hiriburuan bizi diren gehienak landa auzoetakoak dira, eta etxea galdu ez duenak azienda osoa galdu du, edo badu gertukoren bat egoera horretan dagoena.

Alberto: Inpotentzia izugarria da. Aurrekusi zitekeen gertatutakoa. Biomasa han-

dia dago hemen [Galiziako lurren %48 basoak dira], sekulako uda lehorra egin du, euririk ez du egin eta mendiak oso-oso zikin daude. Egun osoa ematen dut mendian lanean, eta askotan biderik ere ezin izaten dugu topatu aurrera egiteko. Hemen oso baldintza onak daude berez landaretza hazteko, baina jakina, ez baduzu planifikaziorik egiten... Eukalipto sailkin kexu da jendea eta bistan da ez dela espezierik onena, baina behintzat araudiren bat balego eukalipto sailak eta pinadiak garbi mantentzeko exijituko lukeena, sikiera kontrol hori balego, baina ez, hori ere ez dago eta hau kaosa da. Sua zabalteko baldintza optimoak geneuzkan egunean piztu dituzte suak, eta horri gehitu behar diogu Ofelia urakanaren

haize hondarren laguntza izan duela suak. Baina hori baino gehiago ere bada. Kultura oso bat dago Galiziako suteen atzean, eta negozioa.

◆ **Azalduiguzue hori.**

Alberto: Batetik, Xuntaren kudeaketa negargarria eta planifikazio eza aipatuko nituzke. Irailaren 30etik ehunka langile gutxiago daude brigadetan. Langile horietako gehienak uda sasoirako kontratatzen dituzte, suteen kontrako kanpainak irauten duen bi hilabeteetarako, eta beste batzuk bederatzita hilabetetarako hartzen dituzte, baina kanporatu zituzten denak. Urte osoarako kontratua duten brigadistak gutxiengo dira. Eta orain zer? Eskuak burura? Irratian entzun diot goizean esatari bati eta arrazoirik ez zitzaion falta: Espainiak milaka polizia ditu Katalunian itsasontzi batean sartuta, zer gerta zain, eta hona, Galiziara, Portugalek bidali ditu brigadistak, gure egoera berean edo zailagoan dagoen bizilagunak.

Elena: 2015ean legea ere aldatu zuen PPK, erretako lur sailetan eraikuntza publikoak eraiki ahal izateko. Eta lege horrek bidea zabaldu die negozioa egin nahi dutenei. Era berean, *Tobiok* esan duena azpimarratu nahiko nuke nik ere. Galizian ez dago basogintza gestiorik. Eukalipto eta antzeko espezie sukoiak gero eta gehiago landatzen dira, eta galdu da hemen bertako landaretza. Era berean, landa auzoak husten ari dira, eta bizi direnak adinekoak dira.

◆ **Eukalipto aipatu duzue. Zer du onetik, eta zer txarretik?**

Alberto: Txarretik, gasolina dela suarentzat, eta lur-saila ondo zaindu eta garbi mantendu ezean, arrisksua izan daitekeela hemen, arrazoi askorengatik. Eukalipto berez-berez eta azkar hazten da; egurraren negozioan ari direnentzat, primerakoa beraz [ENCE multinazionala Galizian dago eta zelulosa-pasta ekoizten duen enpresa handienetakoa da munduan]. Suak kiskalitako eukalipto sail batera joaten zara bi asteren buruan, eta ikusiko duzu erne dela eukalipto-landarea berriro. Hori tratatu ezean, konturatzerako,

“Deskalabroa gertatuta ere, ez dut ikusten hemen ezer aldatuko denik”

- ALBERTO TOBIO-

metro koadroan zortzi bat eukalipto-landare izango dituzu, eta arazo handia.

◆ **Irakurri dugu hamar sutetik zortzi nahita piztutakoak direla Galizian eta sua erreminta ere badela hor. Zeinek irabazten du?**

Elena: Euskal Herrian ere erabiltzen dugu sua bazterrak garbitzeko, eta bai, sua egiten denean arriskua badago suak ihes egiteko, bereziki hemen eman diren baldintzetan, baina hemen 140 su piztu dira aldi berean. Su denak batera? Ez da posible. Sua zabaltzeko baldintza onenak eman diren egunean piztu dituzte, brigadistak kanporatu ostean. Kasualitate asko dira, ezta? Denetarik dagoela esango nuke. Euren lurra berkalifika ditzaten nahi dutenak daude, interes partikularrez jokatzen dutenak daude, eta baita bururik ga-beak ere. Ordenamendua bera ere arazoa da. Hemen, aita hiltzen da eta lurra sei seme-alaben artean zatitzen dute, minifundiotan, eta jakina, batek ez du bere saila garbitzen, eta hark garbitu ezean, gainerakoeek ere ez.

Alberto: Irabazi, izatez, inork ez, hau izugarrizko pobretzea delako.

◆ **Galizia erretzen ari da esatea baino egokiagoa litzateke Galizia erretzen ari direla esatea?**

Alberto: Gai konplexua da elementu asko daudelako nahastuta, baina piromano arruntek piztutako suak eta ezbeharrez zabaldu direnak gutxi batzuk dira. Garbi dago gizakiaren eskua dagoela hemen suteen atzean. Esango nuke batetik, agintarien utzikeria dagoela. Negozioa ikusten dutenean bakarrik esku hartzen dute, negozio gosez. Eta bestetik, lur-jabeen eta herritarren pasibotasuna nabarmenduko nuke. Lur-jabeek ez dute garbi ikusten zer egin dezaketen euren lur-sailekin; ez dute dirurik inbertitu nahi garai zailak direlako

eta ez dutelako garbi ikusten errendimendua eta etekina lortzeko aukera. Ez dute pizgarririk etxe bueltak eta mendia garbi mantentzeko. Jendeak errezero egiten du, eta ulergarria ere bada, hein batean. Mendia garbitu eta fruitu arbolak sartzeak arriskua du gaur egungo merkatu sisteman. Hartzen duzu lan hori eta gero ezin frutarik saldu! Eta berdin egurrarekin ere! Ikusten baduzu egurra hutsaren hurrengoan saldu behar duzula zertarako hartuko duzu mendia garbitzeko lana! Hemen ez du inork sasi-garbitzeko makinarik hartzen, tartean isunik ez badago edo otsoari belarriak ikusi ezean. Eta gero, herritarren pasibotasuna dago. Negozioa dagoen moduan dago egituratuta eta onartzen dugu. Ustelkeriarekin gertatzen den gauza bera.

◆ **Basozaina zara zu. Zeren falta igaritzen duzu? Zer behar da urgentziaz?**

Alberto: [Etena egin du]. Begira, euria hasi du! Hau ona! Hau orain dela 50.000 urte bezala da. Euria egiten duenean eskerrak ematen diozu goikoari, ez dagoelako hori baino dutxa hobeagorik. Eta 2017an ez luke Atapuerca garaian moduan izan behar! Orain bitartekoak daude, ezagutza handiagoa dugu, eta erabili egin behar da. Basogintza politika aldatu behar da. Alferrik da, “hau pena!”-ka aritzea. 2006an antzekoa gertatu zen. Orduan neu ere ibili nintzen egunetan sua itzaltzen mendian. Sutea piztu eta laugarren egunean deitu ziguten lanerako! Zeinek ulertzen du hori?

◆ **Etsita nabari zaizu. Sikiera herritarren arteko elkartasun handia ikusi dugu argazkitan.**

Alberto: Bai, herritarrek itzali dute sua, hein handi batean, eta bai, handia gertatzen denean jendeak laguntzen dio elkarri, baina urteko gainerako egunetan bakoitzak bereari begiratzen dio hemen eta denengan, ondokoaz kezkatu gabe. Eta badakizu: arazoak eztanda egiten duenean kaltea denontzako da, naturak ez duelako ulertzen banalerroez eta jabetzez. Deskalabroa gertatuta ere, ez dut ikusten hemen ezer aldatuko denik.



Iker Eskibelek hiru segundoan ondu zuen iaz berak ezarritako errekorra Idotorbeko igoeran

Pilarika egunean, urriaren 12an, jokatu zuten El-goibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatzen duen Julian San Juanen Oroimenezko 26. San Pedroko Igoera. Aurten 45 txirrindularik parte hartu zuten eta Iker Eskibel (Eskoriatza, 1993) izan zen azkarrena, bigarren urtez jarraian. Iaz segundo batean ondu zuen Iñigo Larizek 2002. urtetik zeukan marka, eta aurtengoan hiru segundo jan zizkion iazko denborari. Txirrindulari eskoriatzarrak hamahiru minutu eta hamazazpi segundoan igo zituen Kalegoen Plazatik Idotorbe gainera dauden 3,8 kilometroak. Eskibel Alberto Contador txirrindulari ohiak sustatutako Fundacion Alberto Contador Polartec taldean aritu da denboraldi honetan, 23 urtez azpikoen kategorian, baina hurrengo denboraldian ez duela taldean jarraituko jakinarazi diote.

80 urterekin

Eskibelek 40 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Ruben Merino durangarrari (13.46) eta Josu Uriarte markinarra sailkatu zen hirugarren postuan (13.49). Orain bi urte igoera irabazi zuen Ramon Javier Garcia elgoibartarra sailkatu zen laugarren postuan. Jose Mari Arrazola izan zen helmugara ailegatzen azkena, 33:58ko denbora eginda, baina badu nahikoa meritua, 80 urte eginak dituelako.

Mintxetako egoitzaren inaugurazioa

Elgoibarko Lagun Taldeak Mintxeta kirol gunearen sarreran duten egoitza berriaren inaugurazioa egingo du zapatu honetan, urriaren 21ean, 11:00etatik aurrera.



Maite Maiora 2017ko munduko mendi lasterkari osoena

Nazioarteko Mendi Lasterketen Federazioak (ISF) antolatzen dituen Munduko Kopak iritsi dira amaierara. Extreme eta Ultra modalitateetako zirkuituak amaitu ostean, Skyrunning zirkuituko Munduko Kopako azken proba jokatu zuten urriaren 14an Italian: Limone Extreme Skyrace. Garda lakuari hasi eta amaitu zen 29 kilometro eta 2.540 metroko desnibel positiboa zuen proba. Gizonezkoetan, Marco De Gasperi italiarra izan zen azkarrena, eta Tove Alexandersson suediarra gailendu zen emakumezkoetan. Maite Maiora mendaroarrak zortzigarren postua eskuratu zuen arren, sailkapen bateratua irabazteko lehia lehen postuari eutsi zion. Katalunian bizi den Ragna Debats antxitxikari herbeheretarrak proba irabaztea edo bigarren egitea behar zuen Maiora sailkapenean aurreratzeko, baina hirugarren postuan sailkatu zen, eta, hortaz, Maiorak 0,8 puntu eska-seko aldea atera dio mendi lasterketen munduko sailkapen bateratuan. Denboraldiko mendi lasterkari osoena, -distantzia motz, ertain zein luzeetan hobekien moldatzen dena- saritzen du titulu honek. Maiorak Zegama-Aizkorri (42 kilometro), Livignon (34 kilometro, Italia), Royal Gran Paradison (52 kilo-



metro), Tromson (57 kilometro) eta Ultra Pirineun (110 kilometro) lortutako garaipenei esker eskuratu du lehen postua. Era berean, Skyrunning Extreme Series txapelketako sailkapen nagusia ere irabazi du aurten mendaroarrak.

Leire Egañak irabazi du Euskadiko ehiza xehe txapelketa, eta Carlos Condek Gipuzkoakoa



Zambranako (Araba) El Castillo ehiza barrutian jokatu zen aurreko zatuan Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketa. Emakumezkoetan Leire Egaña gailendu zen. Ehiztari elgoibartarrak bi eper, faisai bat eta lan txakurrak jasotako eper bat aurkeztu zituen kontrol puntuan, eta 1.752 puntu eskuratu zituen. Mari Jose Carretero sailkatu zen bigarren postuan, bi eper ehizatuta (1002 puntu). Garaipen honi esker, Espainiako Ehiza Xehe Txapelketako finala jokatzeke sailkatzea lortu du Egañak. Abenduaren 9an izango da Badajozeko Valle de la Serena herrian. Gizonezkoetan, Axier Gaztañaga gailendu zen seniorretan, sei eper ehizatuta. Carlos Conde elgoibartarrak zazpigarren postua eskuratu zuen hiru eperrekin. Condek Gipuzkoako Ehiza Xehe Txapelketa irabazi zuen joan den urriaren 8an. Azkenik, beterranoetan lehiatu zen Jose Mari Egaña elgoibartarrak, Leireren aitak, lau garren postua lortu zuen eper bat eta faisai bat ehizatu eta gero.

Mayi Mujika gailendu da Osintxuko mendi lasterketan

Osintxuko bigarren Mendi Lasterketak 60 korrikalari inguru batu zituen urriaren 7an. 10 kilometro inguruko zirkuitua osatu behar zuten eta Jon Alberdi zestoarra (46.40) izan zen azkarrena gizonezkoetan eta Mayi Mujika elgoibartarra emakumezkoetan. Mujikak bigarrenez lortu du Osintxun podiumeko goengo koxkara igotzea. 54 minutu eta 23 segundotan osatu zuen ibilbidea. Iazko denbora ia lau minututan hobetu zuen. Ane Zabala arrasatearra izan zen bigarren emakumezkoa, eta Agurtzane Arriola elgoibartarra hirugarrena.





Arg.: Soarte

Sanlok 300 jokalari eta hamasei talde ditu 2017-2018 denboraldian

300 eskubaloi jokalari inguruk jantziko dute aurten Sanloren kamiseta. 60 ume dabilta Eskubaloi Eskolan, eta lehiaketetan, gainerako 240ak. Horiek hamasei taldetan arituko dira, zortzi emakumeenak eta beste zortzi gizonenak. Hiru talde lehiatuko dira senior mailan: Alcorta Forging Group (1. Nazional Maila, gizonetzkoak), Lauko (Eskal Liga, emakumezkoak) eta Salento (Gipuzkoako 1. maila, gizonetzkoak). Jubeniletan lau talde ditu Sanlok: Tecnifuelle (Euskal Liga, emakumezkoak), Deca (Euskal Liga, gizonetzkoak), Beristain banaketak (Gipuzkoako txapelketa, gizonetzkoak) eta Casa Astigarraga (Gipuzkoako txapelketa, emakumezkoak). Kadete mailan ere lau talde ditu: Arilan (Euskal Liga, neskak), Urkunde (Euskal Liga, mitilak), Cometel-Dario (Gipuzkoako txapelketa, neskak), eta Bankoa (Gipuzkoako txapelketa, mutilak). Infantil mailan du talde kopuru handiena Sanlok, bost guztira: Modeltek, Bacalaos Alkorta eta Pneumax nesken taldeak, eta Hotel Txarriduna eta Zubacor mutilen taldeak.

Aitor Urain presidenteak azaldu duenez, harrobia sendotzeko lanean jarraituko dute aurten ere. "Benjamin eta alebi-

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren teknifikazio proiektuan parte hartzeko aukeratu dute Alex Bergua

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 2014-15 denboraldian jarri zuen martxan mutilen eskuko teknifikazio proiektua. Pilotariei entrenamendu tekniko eta prestakuntza fisiko personalizatua eskaintzea du xede, lurraldeko klubei laguntzarekin batera. Aurten, infantil eta kadete mailako 52 pilotari ari dira dagoeneko entrenatzen, eta horien artean da Alex Bergua elgoibartarra. Elgoibarko lagunak eskolako pilotariak Deba eta Urola eskualdeetako pilotariekin batera parte hartuko du ekainera bitartean, astean behin Zestoan egingo dituzten entrenamenduetan. Beñat Rezusta pilotari profesionala izango du irakasle entrenamenduetan.





nentzako entrenamendu kopuruak handitu ditugu, zenbat eta goizago hasi maila tekniko hobea lortzen dutela konturatu garelako". Lehiaketetan arituko diren taldeen inguruan esan du gaur egun duten mailari eustea izango dela helburua: "Senior talde nagusiek, Alcortak eta Laukok, dauden mailan jarraitzeko lehiatu beharko dute. Salentok, berriz, izan dezake mailaz igotzeko aukerarik. Jubeniletan eta kadeteetan Euskal Ligan arituko dira nesken zein mutilen taldeak eta lorpen handia da hori". Iaz hiru igoera fase antolatu zituen Sanlok Elgoibarren, eta aukerarik badute, aurten ere antolatuko dituztela azaldu du presidenteak. "Kostua eta lana eskatzen duten arren, elgoibartarrei eskubaloia gerturatzeko ahaleginean jarraituko dugu", esan du. 110.000 euroko aurrekontua du Sanlok eta hamalau bat lagun ari dira lanean zuzendaritzan.

Sei elgoibartar ari dira lehiatzen Gipuzkoako Xake Txapelketan

Elgoibarko Mekatar xake taldeko sei kide ari dira parte hartzen Gipuzkoako banakako xake txapelketan. Juan Manuel Navarro da maila nagusian ari den bakarra. Mikel Leon, Markel Kerexeta eta Mikel Fidalgo bigarren mailan lehiatzen ari dira, eta hirugarren mailan daude Vicente Santos eta Ivan Fernandez. Zazpi jardunaldi izango ditu txapelketak. Urtririlean hasiko da taldekako Gipuzkoako txapelketa. Mekatar xake taldeak lehen eta bigarren mailetan lehiatzeko asmoa du, eta hirugarren mailan lehiatzeko taldea sortzea aztertzen ari dira. Orain 25 urte izan zituzten azkenengoz hiru talde hiru mailetan.



Agenda

PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 20

19:00 Lagunak - Azkoitia (Aleb, eskuz banaka)

19:30 Lagunak - Ormaiztegi (Inf. eskuz banaka)

20:00 Lagunak - Ilunpe (Inf, eskuz banaka)

20:30 Lagunak - Orio (Nag., Gomazko paleta. 3. maila)

21:15 Lagunak - Batzokiko (Nag., Gomazko paleta. 2. maila)

22:00 Lagunak - Eskoriatza (Nag., Eskuz banaka. 2. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21

16:00 Elgoibar - Ilintxa (1. erreg.)

18:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Oho. jub.)

Domeka, 22

12:00 Elgoibar - Bergara (Oho. inf.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kirolegian)

Zapatua, 21

10:00 Zubacor - Urola (Inf. mut.)

11:15 Pneumax - Ordizia (Inf. nesk.)

12:30 Bacalaos Alkorta - Egia (Inf. nesk.)

19:00 Alcorta F.G. - Anaitasuna (Senior gjz.)

Domeka, 22

10:00 Arilan - Ereintza (Kad. nesk.)

11:30 Tecnifuelle - Ereintza (Jub. nesk.)

Raparen hiru emakume erreferentzialesk rap ibiltaria eskainiko dute gaur, Elgoibarren, 'Euskalgintza eta feminismoa' zikloaren barruan

Euskalgintza eta feminismoa, eskutik helduta zikloaren barruan, Amelia Barquin Huheziko irakasleak 'Euskara generoaren ikuspegitik' hitzaldia eskaini zuen asteazkenean (Bideoa: barren.eus), eta gaur Rap ibiltaria izango da Elgoibarko kaleetan, 19:30etik aurrera. La Basu, Aneguria eta Raquel Coroma etorriko dira Elgoibarko kaleetan zehar rap musika eskaintzera. Alde betetik La Basu eta Aneguria izango ditugu, Bizkaiko euskal raparen emakume erreferentzialak. Eta bi horiekin batera Raquel Coroma ere etorriko da, Sierra Leonako jatorria duen dantzari gipuzkoarra. Kontzertu ibiltaria egingo dute Elgoibarko San Frantzisko kalean, beraien erritmo, ahots eta dantza pausak uztertuz. Kultur Etxe aurrean hasiko da ikuskizuna.



Amelia Barquin, eguaztenean.



Aneguria eta La Basu.

Berto-bazkari literarioa hilaren 28an

Bihar zortzirako (urriak 28), bestalde bertso-bazkari literarioa antolatu dute. Danele Sarriugarte idazle elgoibartarrak gidatuko du saioa eta hiru bertsolari arituko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal. Euskalgintza eta feminismoa nork bere modura landu duten lau artista dira, zeresan handia duten lau emakume.

Txarriduna hoteleko hall-ean izango da saioa, 14:00etan, baina joan nahi duenak izena eman beharko du aurrez Elgoibarko Izarran (943 741 626 Imanol), urriaren 23a baino lehen. Bazkarirako txartelak 20 euro balio ditu (ikasleek eta langabetuek 15 euro). Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun sailek, Jaurlaritzaren, Foru Aldundiaren eta Txarriduna hotelaren laguntzarekin antolatu dute ekitaldi hau.



Uxue Alberdi



Maialen Lujanbio



Nerea Ibarzabal



Danele Sarriugarte

Jai ofizialik egin ez arren, jai-giroa izan zuten Errosario kalean



Errosario kaleko jairik ofizialki ospatu ez den arren, festa giroa nagusitu zen Errosarioko kaleko amaren egunaren harira. Batetik, Errosario kaleko jaietan kalejiran irteteko ohiturari eutsi nahi izan

zion Mautixa txarangak, eta euren ekimenez irten ziren herriko kaleak musikaz girozera. Eta ez ziren bakarrik irten, gainera. Erraldoi eta buruhandiak, eta zezenziletak ere irten ziren Mautixako kideekin batera. Era berean, Errosario kaleko jaietako ohitura zen txokolate jana ere egin zuten, Kalebarren plazan. Gabi jatetxeak prestatu zuen txokolatea Udaleko Kultura Sailaren babesarekin, eta ume zein helduek izan zuten txokolatea dastatzeko aukera. Besteak beste, San Lazaro egoitzako egoiliarrek ere irten ziren txokolatea jatera, eta egoitzako arduradunek eskerrak eman dizkiete antolatzaileei.

Azkenik, Errosario kaleko amari eskainitako ezpata-dantza egin zuten Haritz dantzari taldeko kideek. Duela 500 urteko tradizioa da Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideek 2009an berreskuratu zuten ezpata dantza. Alde zaharreko kaleetan egin zuten kalejira, .

14 herrialdeetako arrozak dastatzeko aukera izango da bihar, Maalan



Munduko arrozen dastaketa antolatu du Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak biharko, eta ekimen horren barruan munduko 14 herrialdeetako arrozak dastatzeko aukera izango da, Maalako parkean: Errumania, Bolivia, Txina, Kongo, Ekuador, Maroko, Argentina, Nigeria, Portugal, Dominikar Errepublikak, Senegal, Ukraina, Venezuela eta Euskal Herria. Kultura desberdinen eta giza erakundeen arteko harremanak sustatu eta jatorri ezberdineko pertsonen arteko bizikidetzak bultzatu nahi dute antolatzaileek. 10:00etan hasiko dira arrozak prestatzen, eta 12:00etatik aurrera dastatu ahalko dira.

Tolosatik Tokiora bizikletaz egindako bidaia azalduko du Lander Egia

Baguaz! bidaia esperientzien bigarren saioa izango da martitzenean, Elgoibarko Izarrak Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin antolatuta. Oraingoan Tolosako Lander Egia etorriko da gurera, Tolosatik Tokiora bizikletaz egin zuen bidaiaren berri ematera. Urrutiko ametsa zena egi bihurtzen hasi zen 2014ko udaberrian Landerentzat. Tolosa abiapuntu zuela, Tokiorantz abiatu zen bizikleta gainean. Bidean 28.000 kilometro eta beste horrenbeste lagun egin zituen 29 herrialde zeharkatuz. 19:00etan izango da ekimena, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



'Perretxikoen lista gorria' hitzaldia antolatu du Karakate elkarteak eguenerako

Karakate elkarteak *Perretxikoen lista gorria* hitzaldia antolatu du urriaren 26rako, eta ekimen horrekin hasiko dira aurtengo jardunaldi mikologikoak. Ignacio Mugertza Karakate elkarteak batzordeko kideak eskainiko du hitzaldia Karakate elkartearen bertan (San Roke auzoan, Aterpe jatetxearen alboan), 19:00etatik aurrera. Hitzaldiaz gain, Aranzadiren klasifikazioa izango da urriaren 28an, perretxiko erakusketa hilaren 29an, ikasleentzako bisita gidatuak urriaren 30ean eta azaroaren 5ean irteera mikologikoa egingo dute Morcaikorekin elkarlanean.



'Motxilaren umea' filma gaur, musika eskolan

Presoen sakabanaketari buruzko film laburra eskainiko du Sarek gaur, musika eskolako auditoriumean, 19:30etik aurrera. Film pedagogikoa da, haurrentzat zuzendutakoa. Rita Naveirak (Barakaldo, 1974) zuzendu du filma eta helburu garbia du: gainerako haurrek enpatia bidez ulertzea gurasoren bat urrun duten haurrek bizi duten egoera. Dokumentalarekin batera, Imanol Iparragirre preso ohiak bere bizipenak kontatuko ditu. Espetxean zegoela izan zen aita Iparragirre, eta bere bi semeek eta eurek egoera hura nola bizi izan zuten kontatuko du.

San Migel jaietako zozketak badu irabazlea

San Migel jaien barruan txahala zozketatu zuten Aiastiako jai batzordekoek eta irabazlea azaldu dela jakinarazi dute. Mendaroko Itxasueta baserriko Pedro Arriola da txartel sarituaren jabea. Bi aukera zituen, txahala etxera eramane ala 1.300 euro dirutan saria jaso. Bigarrenaren alde egin du saridunak.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Ekonomia ikasketak eginda dauzkat.
☎ 632 893 515

Ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest.
☎ 626 435 491

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.
☎ 688 738 823

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.
☎ 688 718 853

Neska gaztea eskaintzen da garbiketarako edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.
☎ 688 712 075

Adinekoak eta umeak orduka zaintzeko prest nago.
☎ 633 401 678

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka.
☎ 602 047 812

Garbiketa lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 616 457 254

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiten ditut. Orduka.
☎ 602 625 718

Emakume arduratsua eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, Orduka.
☎ 688 729 292

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, astezkenetan eta ostiraletan.
☎ 684 318 696

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez edo gauzez. Erreferentziak ditut.
☎ 646 821 678

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 686 077 316

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke, orduka edo interna moduan.
☎ 632 061 103

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez.
☎ 632 733 573

Adinekoak zainduko nituzke, orduka nahiz interna.
☎ 632 292 690

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.
☎ 662 041 526

lan bila nabil. Esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen eta sukaldari laguntzaile lanetan.
☎ 631 827 339

Langile elgoibartar eta euskaldunak elkarte eta txokoen garbiketarako egiteko eskaintzen gara. Esperientzia daukagu.
☎ 626 490 986

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago, orduka.
☎ 637 102 725 / 943 744 033

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo interna.
☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 632 410 561

Ingelesa. Etxez etxeko klaseak eta maila guztietan. Irakasle tituluduna.
☎ 680 319 002

Garbiketarako egiteko prest nago, orduka. Nagusiak ere zainduko nituzke, orduka edo asteburuetan. ☎ 657 831 093

Lanerako prest nago, orduka, asteburuetan edo gauzez. ☎ 629 872 270

Lanerako prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 718 853

Eskaintzak

Bi umeri klase partikularrak emateko pertsona behar da, Mendaron. Fisika, kimika eta matematika.
☎ 616 887 813

Urkundek elektrizitate teknikorako langilea behar du, produkzio eremurako. Beharrezkoa da profesionaltasun elektrikoaren ziurtagiria, ertain edo goi mailakoa. Bidali CV-a e-posta honetara: urkunde@urkunde.es

ETXEBIZITZAK.....

Apartamentu bat alokatzen dut, San Roke kalean. Logela bakarrekoa. Pertsona bakarria edo bikote batentzat aproposa. ☎ 679 866 923

Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 677 259 560

Pisu txikia hartuko nuke alokairuan, edo bestela etxea konpartituko nuke.
☎ 600 383 157

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

GARAJE ETA LOKALAK.....

Garaje itxia saldu edo alokatzen da. 103 m². 4,10 metroko altuera. Igelseteritza edo margoketa biltegi moduan erabiltzeko egokia. Baita autokarabanak gordetzeko ere. Olasope inguruan. Arratsaldez deitu. ☎ 661 827 292

BESTELAKOAK.....

La Union Elkarteko bazkide-akzioa salgai. Baldintza ezin hobekak.
☎ 679 578 115

Ezkontza eraziuna galdu dut Maala inguruan. Balio sentimental handia du. Se-cundina jartzen du, ezkontza dataren ondoan. ☎ 638 072 012

Lursaila salgai Urruzuno auzoan. 800 m², fruitu-arbolak eta txoko-txabolarekin.
☎ 669 683 351

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Erregeko Administrazioaren Lanak



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Garajeen komunitate bateko bi jabe gara, baina gu garaje ireki banaren jabe gara bakarrik. Gainerako jabeek, garaje-plazaz gain, etxebizitzaren baten eta ganbararen baten jabe ere badira.

Garaje komunitatean, xukatzeko bonba bat daukagu, eurite handietan uholdeak saihesteko eta igogailuko hobia urez bete ez dakigun, itsas ertzean dagoelako eraikina. Orain, xukatzeko bonba hori aldatzea onartu dugu batzarrean, eta jakin nahiko nuke garajeetako komunitateko jabeekideek bakarrik ordaindu behar dugun edo eraikin guztikoen artean.

Xukatzeko bonba horrek betetzen duen funtzioa zein den ikusita, garbi dago oinarrizkoa dela eraikinaren estankotasuna bermatzeko eta ondorioz baita bizigarritasunerako ere, zeina legez ezarritako betebeharrak den.

Legeak dio eraikinaren eta bertako zerbitzu eta azpiegitura komunen mantenu egokirako diren obrak egitea edota bizigarritasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko ezinbestekoak diren obrak egitea derrigorra dela; baita Administrazio publikoak exijitutako obrak egitea ere. Halakotarako ez da jabeekideen batzarren adostasunik behar, ezta Eratze Titulua edota estatutuak aldatu behar badira ere

AHOLKUA: Xukatzeko bonba eraikineko guztien artean ordaindu beharko duzue eraikinaren estankotasuna bermatzeko ezinbestekoa dela ulertzen delako. Hau da, garaje komunitateko eta etxebizitza komunitateko jabeekide guztien artean ordaindu beharko duzue.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Gorka**, urriaren 13an 2 urte bete zenituelako. Oso ondo pasatu genuen. Mila muxu etxe-koen eta bereziki, aitiitta eta amonaren partez.



Zorionak, **Nerea**, asteartean 10 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.




Zorionak, **Gorka**, gure atezain bikaina, zure 6. urtebetetzean. Patxo handi bat etxe-koen, eta bereziki, Maiaren partez.



Zorionak, **Xabi!** Bihar 3 urte! Muxu asko denon partez.



Zorionak, **Luken!** Oso ondo pasatu genuen! Traktorea zain daukazu! Elgoibarko sorginek eta familiak.



Joan zen igandean 9 urte eta 364 egun, eta gaur, 10 urte eta 4 egun. Zorionak, **Manex**. Muxu handi bat denon partez.




Zorionak, **Lea!** Igandean zure lehenengo urtebetetzea! Muxu potolo bat etxe-ko guztien partez, printzesa.




Zorionak, **Mikel!** Sei muxu potolo zure 6 urteak ospatzeko. Familia-koen eta lagunen partez.



Zorionak, **Malen**, urriaren 5ean 8 urte bete zenituelako! Primeran pasatu genuen! Muxu handi bat familia guztiaren partez!



50 urte! Jarraitu horrela, gurekin nahi zaituztegu beti-eta. Zorionak, **bikote!**



Zorionak, **Goiuri eta Xenki**. Etxekoen eta, batez ere, Markel, Oinatz, Oxel, Aratz, Aimar eta Peruren partez.



1951. urtean jaiotakoen bazkaria azaroaren 11n egingo dugu Karakate ja-texean. 13:00etan elkartuko gara elizako arkupeetan. Azaroaren 9ra arte eman daiteke izena. 40 euro sartu behar dira ES71 3035 0007 270071134455 zenbakian.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranoa
 Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Asteleheneratik ostirakerara: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoiz ere ezin izango duzue gurekin elkarrekin.
 Dena ordu hartzeak.

ARMAZOIA + LENTEAK 89€-TIK

VOGUE OPTIKA

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio
 RPS 183/12

20 BARIXAKUA

19:30 Dokumentala: *Motxilaren umea*. Sarek antolatuta, musika eskolako auditoriumean. Imanol Iparragirre preso ohiak bere bizipen pertsonalak kontatuko ditu.

19:30 Rap ibiltaria: La Basu, Aneguria eta Raquel Coroma. *Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta* zikloaren barruan. Kultur Etxe aurrean hasita.

20:30 Aurrez grabatutako opera emandaldia. *La flauta mágica*. Herriko Antzokian.

21 ZAPATUA

10:00 Munduko arroz dastaketa. Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak antolatuta, Maalako parkean.

22 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Inazio Bereziartua musika eskolako bandak ere hartuko du parte. Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *De Andaluca a Aragon* (J. Teixidor).
2. *The millennium song* (Kees Vlak)
3. *Katuska* (P. Sorozabal).
4. *Piratas of the Caribbean* (K. Badelt).
5. *Happy Mallets* (H. Evers). Marimba bakarlarria: Julen Larreategi.
6. *New York, New York* (J. Kander)

23 ASTELEHENA

16:00 eta 18:00 Gurasoentzako formazio saioa: Mindfulness. Lehen saioa, euskaraz, eta bigarrena, gaztelaniaz. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzaileak: Elgoibar Ikastolako Gurasoen Kontseilua, Kalamua Guraso elkarte eta Arreiturreko guraso elkarte.

19:00 Epeletan literatur tailerra. Mariarna Bla idazlearen *Hain gutun luzea* landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

24 MARTITZENA

19:00 *Baguaz! Bidaia Esperientziak*. Lander Egiak bere bidai esperientzia azalduko du. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultura Sailaren babesarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

25 EGUAZTENA

17:00 Emakumeentzako ikastaroa: *Feminitatea ehuntzea emakumeen arketipoen eta historiaren bizipenekin*. Haizea Emakume Taldeak antolatuta, Pedro Muguruza Eskoletako lokalean.

26 EGUENA

19:00 Hitzaldia: *Perretxikoen lista gorria*. Karakate mikologia elkarteak antolatuta, Ignacio Mugertzak eskainiko du hitzaldia, Karakate elkartean.

27 BARIXAKUA


17:30 Kiribilka. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

MAQUINA ESPECIAL



* Torna CNC eta Lebedin makinak beritza
* Automatizazio Programazioa
* Eskala elektronikoa
* Aurreratuak diren teknologia berriak
* Muntai mekanikoak
* Subkontratazioa

868 83 34 79 / 860 37 68 54
me.maquina.especial@gmail.com



GOTZON GARATE BEKAREN III. DEIALDIA

- **GAIA:** Gotzon Garateren oroimenez Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak 2009an hasita elkarlanean antolatuta duten "EUSKARA ALA EZKARA" zikloek emandakoa jaso, aztertu eta gizarteratzeko lan-plana diseinatzea.
- **OINARRIAK:** www.elgoibar.eus edota Euskara Sailean (Kultur Etxean) 943 744 366 edo euskara@elgoibar.eus
- **ZENBATEKOA:** Bekaren zenbateko osoa 12.000 eurokoa izango da.
- **IRAUPENA:** Lana egiteko epea 9 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik hasita.
- Lana euskaraz aurkeztuko da.
- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua: azken eguna 2017ko azaroaren 22a.
- Heritarrentzako Arreta bulegoa: Santa Ana kalea 2. 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
- **ERREFERENTZIA:** "Gotzon Garate Beka III. deialdia"
- **OHARRA:** Bederatzi urte hauetan antolatutako zikloetako programak bekaraz aurkezteko asmoa dutenen eskura jarriko ditu Udalak www.elgoibar.eus webgunean, eskatzaileek zikloek eman dutenaren berri izan dezaten.



Zinea (Herriko Antzokian)



'Churchill'

21 zapatua,
19:00 / 22:15 (VOS)
22 domeka, 19:00
23 astelehena, 21:30

'Golazen'

22 domeka, 16:30

'Personal Shopper'

(Ongarri zinekluba)
26 eguena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

20 Barixakua YUDEGO
21 Zapatua ORUESAGASTI
Goizez: GARITAONANDIA
22 Domeka ORUESAGASTI
23 Astelehena BARRENETXEA
24 Martitzena IBAÑEZ
25 Eguaztena GARITAONANDIA
26 Eguena ETXEBERRIA
27 Barixakua FERNANDEZ

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan izan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 - (Soraluze) Tel.: 943 751 384

Jose Mari Echaniz Alcorta



2017ko urriaren 12an hil zen, 65 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Ana Maria Gorostiza Garate

2017ko urriaren 14an hil zen, 78 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Horra hor Zaid, kolore bizitan, jarraitzaile zuri beltzen artean. Esanguratsua. Zenbat aldiz sentitu ote da Zaid maitatua eta baztertua. Uxue Alberdiren eta Mari Luz Estebanen solasaldian, hainbat ideia jaso nituen papertxo batean: zenbat aldiz sentitu ote gara emakumeok baztertuta, eta are, emakume euskaldunok. Niri neroni zenbat aldiz gertatu zaidan pentsatu dut. Gertatu zait Elgoibarko anbulatorioan: harrerakoari hitzordua euskaraz eskatu eta hark gaztelaniaz erantzutea, harrerako mahai gainean "nahi baduzu, euskaraz" kartela begi bistan neukala. Gertatu zait gasolindegian: hatzez marraztu behar izatea 3 eta 0, "hogeita hamar" esan eta zenbat gasolio nahi dudun ulertu ez didatelako. Gertatu zait euskarazko izena daukan janari-denda handiengan: kontua zenbatekoa den

galdetu eta arduradunak etorri behar izatea kuxakoari itzultzaile lana egitera. Gertatu zait euskarazko izena daraman telefono-konpainia handiarekin ere: elkar ezin ulertzea, Hizkuntza Eskubi-deen Behatokian eta sare sozialetan hamaika salaketa jarrita ere, behin eta berriz gaztelaniaz egin didatelako. Gertatu zait etxean hiru egunez ur berorik gabe egon behar izatea, eskatzeagatik hornitzaileari euskaraz dakien teknikari bat bidaltzeko. Eta gertatzen zait egunero euskarazkoa behar lukeen Euskal Herriko hedabiderik handiengan: gaztelaniara aldatu behar izatea, garajeko hesia zabalitzen ez denean segurtasuneko langileek ulertzen ez nautelako, ilea atontzera joan eta bertakoek nola nahi dudun ulertzen ez dutelako. Gertatzen ari da, eta gertatzen da. Emakumea izatea gutxi ez eta, euskalduna izatea. Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek kontatuko dute hurrengo asteazkenean Angela Davisena, emakume beltz euskaldunarena.

"Zenbat aldiz sentitu ote da Zaid maitatua eta baztertua"



Dacia Sandero autoa prezio paregabean estreinatzeko zorian zaude aukera hori RENAULT GAURSA n bakarrik duzu.

ESKATU
500€-ko
deskontua, erostean



Oso erraza da.

Dacia España Dacia ESP

DACIA
GRUPE RENAULT

www.dacia.es / 902 245 200 | **Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan**

Eskaintza hau Penintsula eta Balearretarako da, Dacia Duster Base 1.6 85 kW (115 CV) 4X2 bat eskatzen duten partikular eta autonomoentzat, Preference-ren bidez finantzatuta RCI Banque SA Sucursal en España-rekin. Barne daude BEZA, matrikulazio-zerga, garraloa eta RECSA eskaintako promozioak. Gutxieneko epea: 24 hilabete. Finantzatu beharreko gutxieneko kopurua: 4.000€. 5 urteko bermea, lehen bi urteetan kilometro-mugarik gabe, eta hirugarren urtean bermea amaitu egingo da 100.000 km gaindituz gero. Hirugarren urteetik aurrera, Dacia Serenité-ren kontratuko berme-luzapena amaitu egingo da baldintza hauetako bat betetzen bada: 2 urte gehigarri edo guztira 80.000 km, bietan lehenengo gertatzen dena (ikus berme-luzapenaren kontratuen baldintzak). 600 €-ko frankiziadun arrisku orotako aseguruia doan lehen urtean, Mapfre-rekin. Opari diren aipatutako mantentze-lanak 2 dira gehienez ere, 2 urtez edo 40.000 km egin arte (lehenengo gertatzen dena). Aseguruia eta mantentze-lana RECSAren opari dira. Eskaintzak 2017ko irailaren 1etik 30era arte iraungo du. Ez da bateragarria beste finantza-ekintza batzuekin. 500 €-ko balea, autorekin lotutako egungo eskaintzez gain. Irudian ageri den modeloa: Sandero Stepway Tce 66kW (90CV) berria, PSP gomendatua 9.450€, promozio eta deskontuekin.

GAURSA Otaola hiribidea, 22. Tel. 943 82 09 74. EIBAR www.gaursa.com

Dacia gomendatzen du

Baguaz! bidaia-esperientziak

Tolosatik Tokiora bizikletan

Lander Egia

“Urrutiko ametsa zena egi bihurtzen hasi zen 2014ko udaberrian Lander Egiarentzat. Tolosa abiapuntu zuela, Tokiorantz abiatu zen bizikleta baten gainean. Bidean 28.000 kilometro eta beste horrenbeste lagun egin zituen 29 herrialde zeharkatuz. Bideko bizipenak elkarbanatzera etorriko da tolosarra Elgoibarrera.”

Urriak 24, asteartea
Kultur Etxeko hitzaldi gela
19:00

Antolatzailea:



Babeslea:



KULTURA

elgoibar
bizibizid